# BERRIZ KULTURAZ BLAI



berrizko
UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## OHARRAK - AVISOS:

DOAN - GRATIS

**COVID** prebentzio neurriengatik, **SARRERA** mugatua. Aforo limitado.

Sarrerak aurretiaz kultur etxean (2 sarrera pertsona bakoitzeko):

**Ekainak 15-16-22-23-30 12:00etatik 13:30era.**

**Uztailak 6-7-13-14-20-21 12:00etatik 13:30era.**

Eta sarrerak geratzen badira, egun berean ordubete lehenago emanaldiaren espazio berean.

Entradas anticipadas en la casa de cultura (2 entradas por persona):

**15-16-22-23-30 de junio 12:00 a 13:30**

**6-7-13-14-20-21 de julio 12:00 a 13:30**

y si quedasen entradas, el mismo día una hora antes en el mismo espacio de la actuación.

Segurtasun distantzia gorde. Mantener distancia de seguridad.

Maskara erabiltzea beharrezkoa da. Obligatorio el uso de mascarilla.

Jendeak eserita egon behar du. El público deberá permanecer sentado.

# EGUTEGI OROKORRA / CALENDARIO GENERAL

| DATA<br>FECHA | LEKUA<br>LUGAR | ORDUA<br>HORA | TALDEA<br>COMPAÑIA | IKUSKIZUNA<br>ESPECTÁCULO |
|---|---|---|---|---|
| Ekainak 18 Junio | ESKOLAKO PATIOA | 19:00 | HAATIK DANTZA KONPAINIA | Errimak bi oinetan |
| Ekainak 25 Junio | BERRIZBURU KIROLDEGIA | 18:00 | HIKA TEATRO | Tonbola |
| Ekainak 25 Junio | ESKOLAKO PATIOA | 19:30 | DUBE + KUTREBAND | |
| Ekainak 26 Junio | ESKOLAKO PATIOA | 19:30 | 26:11+ KOHATU | |
| Ekainak 27 Junio | ESKOLAKO PATIOA | 12:00 | POTXIN eta PATXIN | Ingurumena zaindu |
| Ekainak 27 Junio | BERRIZBURU KIROLDEGIA | 19:30 | MIGUEL DEL VALLE +ADRIANA BILBAO | Fundiendo el hierro |
| Ekainak 27 Junio | BERRIZBURU KIROLDEGIA | 20:00 | OSA & MUJIKA | Expectations will not kill you |
| Ekainak 27 Junio | BERRIZBURU KIROLDEGIA | 20:30 | SLIPERY + FEEL THE SOUND | Kaleko dantza |
| Ekainak 28 Junio | ESKOLAKO PATIOA | 19:00 | CHICHARRÓN CIRCO FLAMENCO | Sin ojana |
| Ekainak 28 Junio | HILERRIA | 20:30 | TXINTXAUN | La nuevAnormalidad parte 2 |
| Ekainak 29 Junio | ESKOLAKO GOIKO PATIOA | 12:00 | TURUKUTUPA! | Reziklantes |
| Ekainak 29 Junio | ESKOLAKO PATIOA | 13:00 | DANTZARI DANTZA | Herriko taldeak |
| Ekainak 29 Junio | ESKOLAKO PATIOA | 19:00 | KORRONTZI & XABIER AMURIZA | Koplariak |
| Ekainak 30 Junio | ESKOLAKO PATIOA | 19:00 | HUTSUN & ORTZI | Urbasa |
| Uztailak 1 Julio | ESKOLAKO GOIKO PATIOA-KIROLDEGIKO APARKALEKUA-FUTBOL ZELAIA | 12:00-13:30<br>16:00-19:00 | UR TXIRRISTA-JUMPING-TIROLINA | |
| Uztailak 1 Julio | ESKOLAKO PATIOA | 19:00 | OIHAN VEGA | Ipuin dantza |
| Uztailak 2 Julio | ESKOLAKO GOIKO PATIOA | 18:00 | EDU MANAZAS | Fuera de stock |
| Uztailak 2 Julio | ESKOLAKO PATIOA | 19:30 | PURU RELAJO | |
| Uztailak 7 Julio | ESKOLAKO PATIOA | 18:00 | TONI LA SAL | Txotxongilo bertsolariak |
| Uztailak 9 Julio | OLAKUETA PLAZA | 19:00 | ZANGUANGO TEATRO | Al otro lado |
| Uztailak 14 Julio | ESKOLAKO PATIOA | 18:00 | SARINI ZIRKO | Txoriak txori! |
| Uztailak 16 Julio | ESKOLAKO PATIOA | 19:00 | XANPATITO PATO | SÒ |
| Uztailak 20 Julio | ESKOLAKO PATIOA | 18:00 | GORKA PEREIRA | Vademekun |
| Uztailak 23 Julio | OLAKUETA FRONTOIA | 19:00 | JAWOR | Polonia |

# ERRE PRODUKZIOAK ANTZERKIA

*Piraten istorio bat*



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| LEGAÑO | 2021/6/11 | 18:00 | 60´ |

Jeff-ek bere lagun Charlie arrantza egitera eramaten du portura. Izan ere, Jeff oso trebea da arrantzan eta kainabera botatzen duen bakoitzean zerbait harrapatzen du. Charlie-k, aldiz, orduak pasatzen ditu eta bere saskiak hutsik jarraitzen du. Baina itsasberan Charlie konturatzen da, erdi lurperatuta, kutxa bat ikusten dela. Irekitzean mapa bat eta bidai egunerokoa aurkitzen dituzte. Egunerokoa irakurtzen hasi eta abentura ikaragarrian murgilduko dira, piraten istorio bat Itsaso zakarraren gorabeherak, gauaren magia eta adiskidetasunaren potereaz ohartuko dira ikusle txikienak bidai honetan. PIRATEN ISTORIO BAT keinuen bidezko ikuskizuna da, arina, dibertigarria eta familian gozatzekoa.

Jeff ha llevado a su amigo Charlie a pescar al pantalán de la playa. A Jeff se le da muy bien pescar y cada vez que tira la caña, pesca. Charlie, en cambio, ve pasar las horas sin nada que llevar a su cesta. … baja la marea y Charlie se percata de que en la arena se deja entrever un cofre semienterrado. Lo abren y descubren un mapa y un diario de viaje. Comienzan a leer el diario y viven las aventuras de una auténtica historia de piratas. Un viaje en el que los espectadores más pequeños descubrirán las calamidades de la mar bravía, la magia de la noche y el poder de la amistad. PIRATEN ISTORIO BAT es un espectáculo gestual, ágil, divertido y para disfrutar en familia.

# HAATIK DANTZA KONPAINIA DANTZA

*Errimak bi oinetan*



| LEKUA ESPACIO | DATA FECHA | ORDUA HORA | IRAUPENA DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO PATIOA | 2021/6/18 | 19:00 | 60´ |

Bertso ariketa eta jokoak dantzara eramatea da emanaldi honen berezitasuna edo ezberdintasuna. Eta bertso sorta zahar eta berriei mugimendua emanez, gaurkotasunari buruzko gogoetak plazaratzea. Sustrai Colina, Xalbador, Aitor Mendiluze, Lazkao Txiki, Uxue Alberdi, Odei Barroso eta bertsolari gehiagoren errimekin egingo dute dantza bost dantzarik. Igelaren bandak jarri die soinua bertsoei, eta Thierry Biscary, Maddalen Arzallus eta beste hainbatek jarri diote ahotsa. Bertsoa entzun, dantza ikusi eta emanaldia biziaraziz.

**La singularidad o diferencia de esta actuación es llevar el ejercicio y juego del bertso a la danza. Y dando movimiento a versos antiguos y nuevos, para sacar a la luz reflexiones sobre la actualidad. Bailarán cinco dantzaris con rimas de Sustrai Colina, Xalbador, Aitor Mendiluze, Lazkao Txiki, Uxue Alberdi, Odei Barroso y más bertsolaris. Igelaren banda ha puesto el sonido a los bertsos, y Thierry Biscary, Maddalen Arzallus y muchos y muchas otras le han puesto la voz. Escucha el verso, observa el baile y haz que la actuación cobre vida.**

# HIKA TEATRO

*Tonbola*

# ANTZERKIA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| BERRIZBURU<br>KIROLDEGIA | 2021/6/25 | 18:00 | 60´ |

BIZITZA TONBOLA BAT DA- ideia abiapuntu hartuta hasi ginen TONBOLA eraikitzen. Nork esango zigun orduan, kontzeptu horren egiak gaur horren krudel eragingo zigunik? Europaz hitz egin nahi genuen. Europako muga eta territorioez. Hitz egin nahi genuen askatasunaz, giza mugimenduez, migrazioaz, enpatiaz, solidaritateaz… Nork esango zigun orduan, hitz horien egia kolokan gera zitekeenik? Europako muga guztiak gaindituko dituen kabaret poetikoa. Umorea eta salaketa. Absurdoa eta errealitate gordina. Koktel "esplosiboa".

**"LA VIDA ES UNA TÓMBOLA". Comenzamos nuestro proceso de creación a partir de esta premisa. ¿Quién nos iba a decir entonces que, tal idea hoy la viviríamos de manera tan descarnada? Queríamos hablar sobre Europa, sobre muros y fronteras. Queríamos hacerlo poniendo en valor conceptos como empatía, libertad, emigración, solidaridad… ¿Quién nos iba a decir que, hoy, algunas de estas ideas estarían tan en entredicho? Un cabaret poético que no entiende de fronteras. Una combinación entre el humor y la denuncia, el absurdo y el realismo cruel. Un cocktail explosivo.**

# DUBE + KUTREBAND

# MUSIKA



| LEKUA ESPACIO | DATA FECHA | ORDUA HORA | IRAUPENA DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO PATIOA | 2021/6/25 | 19:30 | 120´ |

Berrizen, musikari harrobi itzela izan dugu beti. Eta zorionez, belaunaldi berri bat be badator. Esaten den bezala, "Rock-a ez da inoiz hiltzen" eta horren adibide, oholtzan izango ditugun gazte hauek. Gozatu kontzertuaz.

**En Berriz siempre hemos tenido una gran cantera de músicos. Y afortunadamente, ya tenemos una nueva generación. Como se dice, "El rock nunca muere" y como ejemplo, estos jóvenes que tendremos en el escenario. Disfrutemos del concierto.**

# 26:11+ KOHATU

# MUSIKA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>PATIOA | 2021/6/26 | 19:30 | 120´ |

Euskal rockak etorkizuna baduela erakusten digute berriztar hauek. KOHATUk 2020an argitaratu zuen OSKOLAK bere lehen diskoa. Eta harrera izan du.

Gaur 26:11 eta KOHATUREN musikaz gozatzeko aukera izango dugu gure herrian

**Estos berriztarras nos demuestran que el rock vasco tiene futuro. KOHATU publicó su primer disco OSKOLAK en 2020. Y ha tenido muy buena acogida.**

**Hoy podremos disfrutar de la música de 26:11 y KOHATU en nuestro pueblo..**

# POTXIN eta PATXIN

*Ingurumena zaindu*

# PAILAZOAK



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>PATIOA | 2021/6/27 | 12:00 | 80´ |

Antzerki, mimo, malabare, joku eta elkarrizketaren bitartez bizitzaren ohitura onen berri izango dugu. Mugikortasunari buruzko esketxa landuko dugu, ikastetxera joateko garraio mota desberdinak aipatuz; hamaiketakoan janari fresko eta osasungarriak eskeiniko dizkigute potekoen ordez; urak duen garrantzia eta erabilera egokiaz arituko gara; jolasen bidez birziklatzen ikasiko dugu, gai bakoitza dagokion ontzian sartuz; trafiko seinaleak ikasiko ditugu... Hau da, goizean jeiki eta oheratu bitarteko zereginetan lagunduko digute, gutxiago kutsatuz, zikinduz, ingurumena gutxiago kaltetuz... Materialen erabilera zuzenari buruz solastuko dira. Ordezkatu, murriztu, berrerabili, birziklatu eta berreskuratu hitzak gauzatuko dituzte. Saio dinamiko eta dibertigarri bat eskainiko digute, elkarrizketa eta jolasen bidez helburua lortuz.

**Nos van a dar información sobre las buenas costumbres de la vida a través del teatro, mimo, malabares, juegos y diálogo. Nos presentarán un sketch sobre la movilidad, qué medios usar para ir al cole; para el almuerzo nos ofrecerán comida fresca y sana en vez de prefabricada; hablaremos de la importancia del agua y su uso adecuado; aprenderemos a reciclar jugando, guardando cada cosa en su contenedor; cómo respetar las señales de tráfico... En definitiva, nos ayudarán con la actividad de un día cualquiera desde que nos levantamos hasta que nos acostamos, contaminando menos, ensuciando menos, cuidando el entorno... Trataremos la buena utilización de los materiales, poniendo en práctica las palabras reemplazar, reducir, reutilizar, reciclar y recuperar. Nos ofrecerán una actuación dinámica y divertida, consiguiendo la meta a través del juego y el diálogo.**

# MIGUEL DEL VALLE +ADRIANA BILBAO DANTZA

*Fundiendo el hierro*



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| BERRIZBURU KIROLDEGIA | 2021/6/27 | 19:30 | 20´ |

Euskal historiaren ukitu erakargarri batzuen bitartez, gure pertsonaiak denboran bidaiatzen du eta elkarren aurkako bi kulturaren arteko talkari aurre egin behar izaten dio. Oso sustraituak dauden bi tradizio eta giro desberdinak. Aldaketari uko egiteak energia igaro dadin oztopatzen du eta etorkizunari begira aurrera jarraitzeko aukera galtzea dakar. Onartzeko bizitzeak askatasuna ekarriko du, norbere buruaren esklabo izatera etsi ez dutenen askatasuna.

**Atractivas pinceladas en la historia vasca sitúan a nuestro personaje viajando en el tiempo para encontrarse de frente con el choque de dos culturas opuestas. Dos tradiciones muy arraigadas y diferentes ambientes. Rechazar el cambio obstaculiza el paso de la energía y obstruye la oportunidad de seguir fluyendo ante lo nuevo que se presenta. Vivir para aceptar dará paso a la libertad del que no se resigna a ser esclavo de sí mismo.**

# OSA & MUJIKA

Expectations will not kill you

# DANTZA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| BERRIZBURU KIROLDEGIA | 2021/6/27 | 20:00 | 13´ |

Hainbeste amestu duzun une hori da lanaren abiapuntua, hainbeste atsegin duzun pertsona aurkituko duzun momentu hori… zenbat arratsalde pasa ditugu gure burua txukuntzen, zoriontsu, gauean zer gertatuko den irudikatzen? eta nor ez da etxera zeharo triste itzuli irudikatutakoa egi bilakatu ez denean? Obra berehala esperantzaren argiz beteko da, eta porrot hau ilusio bilakatuko da, helburu eta amets berriak lortzeko indarra sentituz. Azken finean, denak bizi gara modu berean, behin eta berriz desiratutako helburuak bertan behera geratu direla-eta triste, baina amets berriei esker ilusioa berreskuratuz. Gaua ez zen irudikatu genuen modukoa izan, espero genuenetik oso urrun geratu zen, baina hala ere izugarri ondo joan zen.

**Partimos de ese instante que tanto has soñado, ese momento en el que por fin encontrarás a la persona que tanto deseas… ¿cuantas veces hemos pasado la tarde preparándonos, felices, imaginando lo que nos deparará la noche? ¿y quién no ha vuelto triste a casa al ver que nada de lo que habíamos soñado se ha cumplido? La obra enseguida se llena de luz, transformando esta derrota en esperanza, encontrando esa fuerza que hará reponernos y seguir adelante peleando por cumplir nuevos sueños y objetivos. Al fin y al cabo, todos vivimos así, derrotados continuamente por expectativas no logradas, pero luchando por otras nuevas que nacerán e intentaremos conseguir. La noche no fue como la imaginamos, fue diferente a lo previsto, pero igual de maravillosa.**

# SLIPERY + FEEL THE SOUND

*Kaleko dantza*

# DANTZA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| BERRIZBURU KIROLDEGIA | 2021/6/27 | 20:30 | 30´ |

Berrizko harrobiarekin jarraituz, gaurkoan ETHAN eta bere dantza taldearen "kaleko dantza" estiloa ikusteko aukera izango dugu. "kaleko dantza/ hiri-dantza" esamoldeak, zenbait ekitaldi, performance eta koreografia-sorkuntzari egiten dio erreferentzia; dantzariek espazio publiko batean dantzatzen dute. Gaur Berrizko kiroldegian ikusiko ditugu. Gozatu ekitaldiaz!

Continuando con la cantera de Berriz, hoy contamos con la presencia de ETHAN y su grupo de danza. La "danza urbana" hace referencia a la creación de eventos, performances y coreografías que se desarrollan en un espacio público. Hoy los veremos en el polideportivo de Berriz. ¡Disfrutad del evento!

# CHICHARRÓN CIRCO FLAMENCO

*Sin ojana*

# ZIRKUA



| LEKUA ESPACIO | DATA FECHA | ORDUA HORA | IRAUPENA DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO PATIOA | 2021/6/28 | 19:00 | 60´ |

Sin Ojana ikerketa-lan sakon eta zorrotz baten emaitza da, flamenkoa eta zirkua aztergai dituena. Zirkuaren mundua hankaz gora jarri eta bere arrastoa uzteko iritsi den pertsonaia baten eraikuntza-prozesu xehea da. Lan ausart eta arriskatua. Detailerik ñimiñoena ere zainduta dago, eszenografiatik jantzietara, musika original zoragarria ahaztu barik. Satira eta umorea izango dira istorio honen haria. Flamenkoari, askatasunari, emakumeari eta, finean, bizitzari egindako omenaldia.
Chicharrón diven pertsonalitatearen erretratua da, euren argi-ilunekin eta gorabeherekin: dena ez da dirudiena. Proposamen honek luzaro iraungo du ikuslearen begian eta gogoan.

Sin Ojana es el resultado de un profundo y riguroso trabajo de investigación con el flamenco y el circo como protagonistas y de un minucioso proceso de construcción de un personaje que ha llegado al mundo del circo para arrasar y dejar su huella. Un trabajo que resulta valiente y arriesgado, en el que hasta el último detalle está cuidado con mimo y amor, desde la escenografía y el vestuario, hasta la fantástica música original. La sátira y el humor harán de hilo conductor de esta historia que no es sino un homenaje al flamenco, a la libertad, a la mujer y, en definitiva, a la vida misma.
Chicharrón es un retrato de la personalidad diva, con sus luces y sus sombras y altos y bajos, en el que no es oro todo lo que reluce. Una propuesta que promete quedarse largo tiempo en la retina y la memoria del y de la espectadora.

# TXINTXAUN

*La nuevAnormalidad parte 2*

# ANTZERKIA



| LEKUA ESPACIO | DATA FECHA | ORDUA HORA | IRAUPENA DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| HILERRIA | 2021/6/28 | 20:30 | 30´ |

Berritsuak, inozoak, maitagarriak, dibertigarriak eta batzuetan ipurterreak. Mariak eta Isabelek hitz egiteko, korapilatzeko eta distraitzeko gaitasuna dute edozein gai, edozein unetan. Aldez aurretik ezagutu genituen bi pertsonaia hauek bere etxeetan eta “Imbebible” ikuskizunean. Egia esan, ematen zuena baino kolore gutxiagoko istorio bat ezkutatzen zuten. Konfinamenduaren eta pandemiaren hilabete hauek igarota, Maria eta Isabel berriro bildu dira “anormaltasun berrian” elkarrekin bizitzeko. Bere mundua partekatzen dute gurekin, gidoirik eta eszenatokirik gabe. Bere presentzia nahikoa izango da, segurtasun-distantzia metro eta erdikoa dela ahazteko eta sentitzeko, beti gertatzen zaigun bezala; hunkitu egiten gaituzte eta barrearazi, gutxi batzuk lortzen duten bezala.

**Dicharacheras, ingenuas, entrañables, divertidas y en ocasiones cascarrabias, María e Isabel tienen la habilidad de hablar, enredar y distraerse con cualquier tema en cualquier momento. Las conocimos previamente en sus casas y descubrimos en el espectáculo Imbebible que estos dos personajes escondían, en realidad, una historia menos colorida de lo que parecía. Tras meses de confinamiento y pandemia, María e Isabel vuelven a reunirse para vivirse juntas otra vez en esta Nueva Anormalidad. Nos comparten su mundo esta vez sin guion ni escenario. Bastará con su presencia para olvidar que mantenemos metro y medio de distancia de seguridad y sentir, como siempre sucede con ellas, que nos han enternecido y hecho reír como pocas personas han hecho antes.**

# TURUKUTUPA!

*Reziklantes*

# MUSIKA FAMILIAN




| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>GOIKO PATIOA | 2021/6/29 | 12:00 | 45´ |

Bi musikarik egindako kontzertu pedagogikoa dugu hau, mota askotako musika estiloak ezagutzeko bidai musikala: afro- latindar musikatik hip-hopara, handik musika garaikidera, etabar. Musika tresna guztiak birziklatutako edota berrerabilitako materialetatik datoz.

**Espectáculo de calle donde hacemos un recorrido por diversos estilos musicales como la percusión africana y latina, así como el hip-hop y la música contemporánea. Todos los instrumentos utilizados provienen del reciclaje y la reutilización de materiales de desecho.**

# DANTZARI DANTZA

*Herriko taldeak*



## DANTZA

| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>PATIOA | 2021/6/29 | 13:00 | 45´ |

Durangaldea, ohituretan aberatsa eta tradiziotan ugaria izan da. Tradizio horietariko bat DANTZARI-DANTZA izenez ezagutzen den dantza-sorta dugu. Humdboldt alemaniarrak 1881ean argitaratutako liburuan ematen du dantzaren berri. Ordutik hona tradizioak etenik gabe jarraitu du bizirik, eta baita zabaldu ere Euskal Herriko bazter guztietara. Agintariena edo ikurrin-dantzarekin hasten da; agintariei egiten zaien begirunezko dantza da, talde bakoitzak bere bandera astinduz. Ondoren, Zortzikoa, Banangoa, Binangoa, Launangoa, Ezpata-jokoa (txikia eta handia), Makil-jokoa eta Txotxongiloa egiten dira. Banango, Binango, Launango eta Zortzikoan, dantzari-kopuruen arabera txandaka egiten dute, bakoitzak bere trebezia erakutsirik. Ezpata-jokoan eta Makil-dantzan tresnak erabiltzen dira. Eta Txontxongiloak, lapur bat atxilotu eta hil zutenekoa gogoratzen omen du.Horren ostean esku-dantza egiten da. Aurresku eta atzesku doazen dantzariek, herritarrak ateratzen dituzte dantzara.

**El Duranguesado ha sido rico en costumbres y tradiciones. Una de estas tradiciones es el conjunto de danzas conocidas como DANTZARI-DANTZA. El alemán Humboldt da cuenta de la danza en el libro publicado en 1881. En el baile de las autoridades, cada grupo agita su bandera. Luego bailan el zortziko, el banango, el binango, el launango ( en función del número de dantzaris que bailan a turnos), ezpata-dantza y makil-dantza. Y txotxongilo que recuerda cuando un ladrón fue detenido y asesinado. A continuación, baile suelto con la participación ciudadana.**

**KORRONTZI & XABIER AMURIZA**

*Koplariak*

# MUSIKA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>PATIOA | 2021/6/29 | 19:00 | 90´ |

KORRONTZI & Xabier Amuriza: Koplariak (Disko berriaren aurkezpena): Korrontzik 2021. urte honetan Koplariak izeneko disko berria aurkezten digu.

Taldearen hamargarren disko hau Korrontzi eta Xabier Amurizaren (bertsolari, idazle eta ikertzaile) arteko kolaborazioaren fruitua da. Korrontzi, bere ibilbideko hamasei urteetan zehar, mundu zabalean tradizio oso baten erakusleiho bilakatu da, euskara, euskal dantza eta musika, hainbat herrialdetako "World Music" jaialdi garrantzitsuenetan ezagutzera emanez. Lan honekin erraietara bueltatzen dira, bertan euskal koplagintzari musika herrikoiaren barnean daukan garrantzia eman diote.

KORRONTZI & Xabier Amuriza: Koplariak (Presentación del nuevo disco): Korrontzi presenta en este 2021 su nuevo disco Koplariak.

El décimo trabajo del grupo es fruto de la colaboración entre Korrontzi y Xabier Amuriza (bertsolari, escritor e investigador). Korrontzi, en sus dieciséis años de carrera, se ha convertido en el escaparate de toda una tradición a lo largo y ancho de todo el mundo, dando así a conocer el euskera, la danza y la música vasca en los festivales "World Music" más importantes del planeta. Con este trabajo vuelven a las raíces, otorgando el lugar que merece a la "koplagintza" dentro de la música tradicional.

# HUTSUN & ORTZI

*Urbasa*

# ZIRKUA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>PATIOA | 2021/6/30 | 19:00 | 45´ |

Txalapartaren oihartzunek eta lainoek natura eta lasaitasuna arnasten duen mendia inguratzen dute. Baina oraingo honetan, indarraren eta teknologiaren bitartez, inguru baketsu hau aldatuko duen ezezagun baten bisita jasoko du naturak.
Urbasa mendilerroa, Nafarroako ipar-mendebaldean dagoena, muga fisiko eta klimatiko bat da, aspalditik pertsonen eta naturaren arteko lotura-gune izan dena..

**Suena la txalaparta y la niebla pone marco a una montaña que respira naturaleza, que respira calma. Pero esta se verá alterada por un visitante que cambiará este entorno a través de la fuerza y la tecnología.**
**La sierra de Urbasa, situada en el noroeste de Navarra, representa una frontera física y climática, que desde hace mucho tiempo ha sido punto de unión entre personas y naturaleza..**

# UR TXIRRISTA

# JOLASAK




| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>GOIKO PATIOA | 2021/7/1 | 12:00-13:30<br>16:00-19:00 | |

Berrizek ez dauka hondartzarik baina … ura ekarri dugu eta "ur txirristaz" gozatzeko aukera izango dute gure haur eta gazteek..

En Berriz no tenemos playa pero .. hoy, niños/niñas y jóvenes podrán disfrutar de este "tobogán de agua".

# JUMPING



# JOLASAK

| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| KIROLDEGIKO APARKALEKUA | 2021/7/01 | 12:00-13:30<br>16:00-19:00 | |

Eta honakorik probatu duzue? Zorabiatzen zarete? Jumping praktikatzeko aukera paregabea.

**Y… ¿habéis probado ésto? Os mareáis? Hoy tendréis la oportunidad de proba.**

# TIROLINA

# JOLASAK



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| FUTBOL<br>ZELAIA | 2021/7/1 | 12:00-13:30<br>16:00-19:00 | |

Eta abentura zaleak bazarete… aukera gehiago zuentzat!!! Tirolina zirkuitua muntatuko da futbol zelaian.

**Y si os gusta la aventura.. esto no ha terminado. Hemos montado un circuito de tirolina en el campo de futbol. Ven y pruebalo!!!.**

# OIHAN VEGA

*Ipuin dantza*

# MUSIKA DANTZA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO PATIOA | 2021/7/1 | 19:00 | 60´ |

Hau ez da ipuin normala! Dantza bidez kontatuko baitugu istorioa. Dantzariak publikoko haurrak izango dira.
COVID-19a dela eta, eserlekutik mugitu gabe egingo dugu dantza ipuinaren protagonista laguntzeko: Ipuinaren pertsonaiak Amets du izena eta zoriontasuna topatu nahi du. Horretarako sentimendu ezberdinetatik igaroko da (beldurra, haserrea, tristezia...).
Zein koloretakoa izango ote da zoriontasuna? Lagunduko al diguzue?

¡Esto no es un cuento normal! Ya que contaremos la historia a través de la danza. Los bailarines serán las niñas y niños del público
Con motivo del COVID-19, bailaremos sin movernos del asiento para acompañar al protagonista del cuento: el personaje del cuento se llama Amets y quiere encontrar la felicidad. Para ello pasará por diferentes sentimientos (miedo, ira, tristeza...).
¿De qué color será la felicidad? ¿Pueden ayudarnos?

# EDU MANAZAS

*Fuera de stock*

# ZIRKUA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>GOIKO PATIOA | 2021/7/2 | 18:00 | 50´ |

Stock-etik kanpo, ametsez, itxaropenez, ilusioez, bizitzaz, zure bizitza, bizitzeko, jolasteko... Bulego bat, biltegi bat, fabrika bat...Lana, dosierrak, diru-sarrerak, gastuak, balantzeak, inbentarioak, mozkinak, Bizitzeko lan egin? Lan egiteko bizi? Non geratuko naiz ni? Zer naiz engranaje honetan? Lanari, pertsonei buruzko ikuskizuna; bere harremanak, irrika eta desioz betea. Zirku moduan kontatua, malabare, akrobazia eta amets askorekin.

**Fuera de stock habla de sueños, de esperanzas, de ilusiones, de la vida, tu vida, de vivirla, de juego… Una oficina, un almacén, una fábrica…**

**Trabajo, dossieres, ingresos, gastos, balances, inventarios, beneficios, pérdidas… ¿Trabajar para vivir? ¿Vivir para trabajar? ¿Dónde quedo yo? ¿Qué soy en este engranaje? Un espectáculo sobre el trabajo, las personas y su relación, lleno de anhelos y deseos. Narrado en clave de circo a través de los malabares, la acrobacia, un mástil y muchos sueños..**

# PURU RELAJO

# MUSIKA



| LEKUA ESPACIO | DATA FECHA | ORDUA HORA | IRAUPENA DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO PATIOA | 2021/07/2 | 19:30 | 90´ |

Oibarren (Nafarroa) sortu zen Puro Relajo taldea, 2013an, bost musikari nafarrek latinoamerikar, mexikar eta euskal gai klasikoak haien taldeari (baxua, gitarra, eskusoinua, tronpetak eta ahotsak) egokituta transmititzeko asmoz.

Sei disko grabatu dituzte latinoamerikar, mexikar eta euskal gai klasikoekin, eta orain arte 250 emanaldi eskaini dituzte, batik bat Nafarroan eta Euskadin.

**Puro Relajo nació en Aibar (Navarra) en 2013 por la inquietud de cinco músicos navarros de transmitir la música latinoamericana, mejicana y clásicos en euskera adaptados a su formación (bajo, guitarra, acordeón, trompetas y voces).**

**Han grabado seis discos de música mejicana, latinoamericana y de clásicos en euskera y ofrecido hasta la fecha 250 conciertos, principalmente, en Navarra y País Vasco.**

# TONI LA SAL

*Txotxongilo bertsolariak*

**TXOTXONGILOAK**



| LEKUA ESPACIO | DATA FECHA | ORDUA HORA | IRAUPENA DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO PATIOA | 2021/07/7 | 18:00 | 50´ |

Felipe Zelaieta bertsolaria aukeratu dute Bertsolaritzaren Munduko Txapelketetan Euskal Herria ordezkatzeko. John Zelaieta, diasporako senide histrionikoa, Idahotik iritsitakoa, izango da bere “coaching” pertsonala Global Bertsolaritzing Camp entrenamendu kanpamentu berezian.

Felipek errezitaldi tradizionalak egiten ditu, eta hori ez da aski: Johnek bere ikaslea munduko txapelketarako hobeto prestatu nahi du. Lokartzen denean, Felipek txotxongiloekin egiten du amets, baina dena zailduko da Johnek Felipe pilula batzuekin dopatzea erabakitzen duenean; izan ere, ordura arte txotxongiloekin izaten zituen ametsak amesgaizto bihurtuko dira.

El bertsolari Felipe Zelaieta, ya de edad avanzada, está preparándose para los campeonatos de bertsolarismo de Euskal Herria, pero, al iniciar los ensayos, sufre olvidos. Para recuperar la memoria, realiza desde ejercicios físicos hasta cambios de dieta alimenticia, pero nada parece funcionar.

Las fechas se acercan y decide tomar unas pastillas cuyos efectos se vuelven en su contra, pues le dejan completamente dormido. Por suerte para él, mientras está dormido sueña con unos títeres a los que les suceden historias inverosímiles. Cuando despierta y se presenta a los campeonatos, recita en verso estas historias, lo que hace que se clasifique en primer lugar en las eliminatorias. Todo se complica al llegar la final de los campeonatos, ya que los títeres que se le aparecen cuando duerme deciden esta vez que tenga una pesadilla en lugar de un plácido sueño..

# ZANGUANGO TEATRO

*Al otro lado*

# ANTZERKIA




| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| OLAKUETA<br>PLAZA | 2021/7/9 | 19:00 | 60´ |

Oihal handia ikusi eta, badakigu beste aldean ikusiko duguna fikzioa dela; guk, berriz, espero dugu horrek laguntzea oihalaren alde honetako errealitatea ulertzen, ahazten edo eramaten. Baina, oihal horren atzean errealitatea jartzen badugu, eta errealitate hori fikzio gisa tratatzen badugu?

Bat-batean, bien arteko mugak desagertzen dira eta garenaren ikusmolde edo aldaera berriak aurkitzen ditugu. Gure pertsonaiak oihal eramangarria hartuta ateratzen dira kalera, bidean topatzen dituzten eguneroko eszenen alderdi magikoak eta aztoragarriak erakutsiz.

**Cuando vemos un telón, sabemos que lo que vamos a ver al otro lado es una ficción y esperamos que nos ayude a entender, olvidar o soportar la realidad de este lado. Pero ¿y si ponemos un telón enmarcando la realidad y la tratamos como ficción?**

**De repente los límites entre ambas desaparecen y encontramos nuevas visiones o versiones de lo que somos. Nuestros personajes salen a la calle con un telón portátil descubriendo facetas mágicas y desconcertantes de escenas cotidianas que van encontrando a su paso.**

# SARINI ZIRKO

*Txoriak txori!*

# ZIRKUA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO PATIOA | 2021/7/14 | 18:00 | 45´ |

Pertsonaia bat, emakumea.
Emakume bakar bat bere eromenaren errugabetasunean. Haurrek kutsatzen duten erokeria. Horrek amets egin eta hegan egiteko aukera ematen digu, hegaztiak gure burutik hegan egin ahala. Familia ikuskizuna hizkuntza unibertsala, poetikoa eta dibertigarria da. Pertsonaiak emozio desberdinak ditu eta umorearekin jokatzen du txoritxo baten konpainiarekin. Bere bidaiatzaile laguna berehalakoa izango da.
Azkar aldaketa, aireko begia, bertikalak, hula uztaiak, nahiz eta zenbait labana bota, ikuskizun hau marrazten duten zirkuko diziplinak dira..

**Un personaje, una mujer.**
**Una sola mujer en su locura, locura inocente. Esa locura que contagian los niños. Que nos permite soñar y volar, como vuelan los pájaros de la cabeza. Un espectáculo familiar de lenguaje universal, poético y divertido en el que el personaje transita por diferentes emociones, y juega con el humor en compañía siempre de un pajarito, el que será su inseparable compañero de viaje.**
**El quick change, el ojo aéreo, las verticales, los hula hoops, incluso algún lanzamiento de cuchillos, son las disciplinas de circo que enmarcan este espectáculo.**

# XANPATITO PATO

SÒ

# ZIRKUA ANTZERKIA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO PATIOA | 2021/7/16 | 19:00 | 50´ |

Pertsonaia obsesibo eta zorrotza.
Izaki bakarra bere espeziean. Bere kontroletik kanpo geratzen diren kaxa amaigabeez inguraturik aurkitzen da eta haiekin jolastuz bere munduari itxura ematen dio. Kaos honetatik, irria berpizten den unibertso bat agertzen da, erokeria umoretsu bat sortu eta izaki berri batean bilakatzen da.

Un personaje obsesivo, cuadriculado y meticuloso.
Un ser único en su especie rodeado de un sin fin de cajas que escapan a su control y  con las que juega para dar forma a su mundo. Del caos surge un universo delirante donde inventa la risa, creando una locura cómica y transformándose en un nuevo ser con una nueva figura..

# GORKA PEREIRA

*Vademekun*

# ZIRKUA



| LEKUA<br>ESPACIO | DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | IRAUPENA<br>DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| ESKOLAKO<br>PATIOA | 2021/7/20 | 18:00 | 45´ |

Pertsonaia berezi bat liburutegi zahar batean, bere magiaz eta asmatzeko trebetasunez blaitzen gaituena. Lekua aldatzen doa magiarekin, akrobaziekin eta ezustekoekin, eszenatokian agertu diren objektu desberdinekin domino efektu polit bat egiten amaitzeko.

**Un peculiar personaje en una antigua biblioteca, nos impregna de su magia y habilidad inventiva. Un espacio que se va transformando con el pretexto de la magia, la acrobacia y la sorpresa para terminar en un bonito truco efecto dominó con diferentes elementos que han aparecido en escena.**

# JAWOR

*Polonia*

# DANTZA



| LEKUA ESPACIO | DATA FECHA | ORDUA HORA | IRAUPENA DURACIÓN |
|---|---|---|---|
| OLAKUETA FRONTOIA | 2021/7/23 | 19:00 | 60´ |

“Nazioarteko folklore jaialdia” berreskuratuz, Poloniako dantza eta musika ezagutzeko eta disfrutatzeko aukera izango dugu.

**Recuperando la edición de “folclore internacional”, este año tenemos la oportunidad de conocer y disfrutar de la música y baile de Polonia.**